

Hipika

Hipikara joan gaitezke zaldiz paseatzera. Horretarako, zaldi zela eta kaskoa erabili behar dira.



1. Maider, haren anaia Javier eta gurasoak hipikara joan dira. Familia osoak ordu bateko paseoa egin du zaldiz. Maiderren amak 72 euro ordaindu ditu guztira. Kalkula ezazu zenbat balio duen ordu bateko paseoak, pertsona bakoitzeko.


Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

Eragiketak:



2. Lagun talde batek egun osoko paseoa egin du zaldiz. Goizean hipikatik lakura joan dira. Askaldegira ailegatu dira eta han geldialdia egin dute, bazkaltzeko. Arratsaldean hipikaraino segitu dute.

Ikus ezazu irudi honetan zer distantzia egin duten.



Goizean arratsaldean baino zenbat metro gehiago egin dituzte?

Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.

Eragiketak:

3. Paseoa zaldiz egin duten lagunetako batek txokolatezko bizkotxo eramandu. Ikus irudian bizkotxoaren errezeta.

TXOKOLATEZKO BIZKOTXOA

- 185 g irin
- 3 arrautza
- 10 g legamia
- 250 g kakao
- 120 g azukre
- 70 g gurin
- 200 ml esnegain likido
- Laranja baten birrindura



- a) Zenbat txokolatezko bizkotxo egin daitezke litro 1 esnegain likidorekin?

Txokolatezko bizkotxo egin daitezke.

- b) Zenbat kg kakao behar dira 8 bizkotxo egiteko?

..... kg kakao behar dira.

4. Zaldizko batek kaskoa erosi du zaldi gainean ibiltzeko. Kaskoak 68 € balio du eta billeteekin eta txanponekin ordaindu du. Aukera hauetan zein da zuzena?



- A. 10 €-ko 6 billete, 2 €-ko 2 txanpon eta 1€-ko 1 txanpon
- B. 20 €-ko 2 billete, 10 €-ko 1 billete eta 2 €-ko 4 txanpon
- C. 20 €-ko 3 billete, 5 €-ko 1 billete, 2 €-ko 1 txanpon eta 1 €-ko 1 txanpon
- D. 10 €-ko 5 billete, 5 €-ko 1 billete, 2 €-ko 1 txanpon eta 1 €-ko 7 txanpon

5. Hipikaren arduradunak 25 zaku pentsu erosi ditu. 6 zaldi zela ere erosi ditu. Oso tara, zenbat ordaindu du?




Idatz itzazu egin dituzun urratsak eta soluzioa.


Eragiketak:

6. Zaldizkoa bere zaldiarekin entrenatzen da astelehenetik ostiralera, eta zaldia zaintzen zenbait ordu ematen du. Hurrengo grafikoetan ageri da zenbat ordu aritzen den entrenatzen eta zenbat zaintzen.

ENTRENAMENDUA



ZAINTZE LANA



Ostegunean eta ostiralean, zenbat denbora pasa du zeregin bakoitzean?

- A. Entrenatzen: 110 minutu. Zaintzen: 7 ordu eta erdi.
- B. Entrenatzen: 120 minutu. Zaintzen: 7 ordu eta erdi.
- C. Entrenatzen: 120 minutu. Zaintzen: 8 ordu eta erdi.
- D. Entrenatzen: 110 minutu. Zaintzen: 8 ordu eta erdi.

7. Zaldi, behor eta moxal asko Urbasan bazkatzen da udan. Begira iezaiozu taulari:

Abere mota	Animalia kopurua
Zaldia	212
Behorra	1813
Moxala	1348



Urbasako bazkalekuetan ibiltzen dira...

- A. 2000 behor baino gehiago
- B. 300 zaldi baino gutxiago
- C. 1000 moxal baino zertxobait gutxiago
- D. 200 zaldi baino gutxiago

8. Abeltzain batek behiak ditu eta hiruko multzo berdinetan bereizi behar ditu, txertoa jartzeko. Behi kopurua edozein dela ere, zatiketa egin ondoren, hondarra izango da...

- A. 0, 1 edo 3
- B. 0, 1 edo 2
- C. 0, 2 edo 3
- D. 1, 2 edo 3

